


TERRAZAK

Terrazak gainazal lauak dira eta batzuetan ez dute inklinazio egokia izaten uraren kanporaketa errazteko. Nahikoa malda izaten ez duten kasuetan, ura pilatu egiten da eta hainbat putzu sortzen dira. Horrela, egunak joan egunak etorri, ura kapilaritatez materialetan barneratu egiten da.

Impermeabilizazio egoki batentzat, garrantzitsua da ur sarrerak identifikatuak izatea. Batzuetan, hainbat puntutatik izaten dira uraren filtrazioak, hori horrela izanik oso zaila izaten da uraren sarrera non dagoen aurkitzea.



Horregaitik, konponketetan %100 asmatzea oso zaila izaten da eta huts egiten da behin betiko konponbidea eman nahi denean. Beraz: terraza bat impermeabilizatu nahi denean, dena batera egitea gomendatzen da.

Terrazen impermeabilizazioaz ari garenean, teilatu edo gune lauetaz hizketan ari gara. Eta dudarik gabe, horrelako guneak izaten dira impermeabilizatzen zailenak. Hauen impermeabilizazioak, zehaztasun handiko eta profesionaltasuna lana eskatzen du. Batez ere, maldarik gabeko zoruetan ari garelako lanean.

Kasu hauetan, maldak eragin handia du. Izan ere, ura hainbat puntutan pilatu egiten da putzua sortuz eta hainbat egunetan bertan egoten delarik, denborarekin kapilaritateaz edo fisuren tartetik, barrera sartzen delarik. Hau izaten da uraren sarreraren arazo nagusia eta horregaitik da garrantzitsua terrazak ondo impermeabilizatzea.